



ZIURTAPEN POLITIKA
ENTITATE ZIGILUA

Erreferentzia: Entitate Zigiluaren ziurtapen-politika
Bertsio zk.: v 1.1
Data: 2016ko uztailearen 1a

© IZENPE 2016

Dokumentu hau IZENPErena da. Kopiarik egitekotan, osorik koptatu daiteke soilik

 IZENPE
Beato Tomás de Zumarraga 71 - 1ª Planta
01008 Vitoria - Gasteiz
Tel.: 945 067 723
www.izenpe.com





AURKIBIDEA

1	ZIURTAGIRIAREN DESKRIBAPENA.....	3
1.1	DEFINIZIOA.....	3
1.2	EUSKARRIA ETA SEGURTASUN-MAILA.....	3
1.3	ERABILERA-ESPARRUA.....	3
1.4	ZIURTAGIRIA IDENTIFIKATZEA.....	4
1.5	XEDAPEN OROKORRAK.....	4
2	ZIURTAGIRIAREN BIZI ZIKLOA.....	5
2.1	IDENTITATEA EGIAZTATZEA ETA ZIURTAGIRIA ESKATZEA.....	5
2.2	ESKATUTAKO DOKUMENTAZIOA.....	6
2.3	ZIURTAGIRIA JAULKITZEKO ETA EMATEKO PROZEDURA.....	6
2.4	ZIURTAGIRIA EGIAZTATZEA.....	6
2.5	ZIURTAGIRIA EZEZTATZEA.....	6
2.6	ZIURTAGIRIAK BERRITZEA.....	7
3	ZENBATEKOA.....	7
4	ZIURTAGIRIAREN PROFILAK.....	8
5	ALDAKETAK.....	8
5.1	ALDAKETAREN KUDEAKETA.....	8
5.2	ALDAKETEN KONTROLA _1.0 BERTSIOA.....	8



Dokumentu honek *Entitate Zigiluko* ziurtagiriari dagokion *Ziurtapen Politika* jasotzen du. *Ziurtapen eta Zerbitzu Enpresa-Empresa de Certificación y Servicios, IZENPE, SA* enpresak (aurrerantzean IZENPE) jaulki du ziurtagiri hori.

Dokumentu honen helburua da IZENPEren *Ziurtapen Praktiken Deklarazioan* mota horretako ziurtagirietarako definitutakoa zehaztea eta osatzea.

1 ZIURTAGIRIAREN DESKRIAPENA

1.1 Definizioa.

Pertsona juridikoko ziurtagiri kualifikatu gisa konfiguratu da, *1999/93/EE Zuzentaraua indargabetzen duen Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren identifikazio elektronikari eta barne-merkatuko transakzio elektronikoetarako konfiantzako zerbitzuei buruzko uztailaren 23ko 910/2014 Araudian* ezarritakoaren arabera.

Ziurtagiri hori entitatearekin lotzen da, eta hura identifikatzea eta zigilu elektronikoak sortzea ahalbidetzen du.

IZENPEk *Entitate Ziurtagiria* jaulkitzen du nortasun juridikoko entitateentzat zein nortasun juridikorik gabeko entitateentzat, zeinetan

- Harpideduna erakundea den.
- Gakoen edukitzailea pertsona fisiko eskatzailea den –lege-ordezkarria da eta ziurtagirian identifikatzen da–.

Ziurtagiri horrek 3 urteko iraunaldia du.

1.2 Euskarria eta segurtasun-maila

Ziurtagiri hori edukitzaile-euskarrian jaulkitzen da, eta araudi honetan zehazten diren segurtasun-mailen arabera: *2015/1502 Gauzatze Araudia (EB), 2015eko irailaren 8ko Batzordearena, identifikazio elektronikoko baliabideen segurtasun-mailetarako zehaztapen eta prozedura teknikoak finkatzeari buruzkoa, betiere barne-merkatuko transakzio elektronikoetarako identifikazio elektronikari eta konfiantza-zerbitzuei buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 910/2014 Araudiaren (EB) 8. artikuluko 3. atalean xedatutakoaren arabera.*

EUSKARRIA		SEGURTASUN MAILA
Edukitzailea	IZENPEren ziurtagirien edukitzailea	Oinarritzkoa

1.3 Erabilera-esparrua

Harpidedunak ziurtagiria erabiliko du ziurtagiria erabiltzea onartzen duten hirugarren batzuek eskainitako zerbitzuetan, IZENPEren *Ziurtapen Praktiken Deklarazioan* (ZPD) definitutako baldintzekin eta mugekin –www.izenpe.com web-orrian argitara dago ZPDa–.



1.4 Ziurtagiria identifikatzea

Ziurtagiri horiek identifikatu ahal izateko, IZENPEk honako objektu-identifikatzaile (OID) hau esleitu die.

ZIURTAGIRIA	OIDa
Zigilu juridikoko ziurtagiria	1.3.6.1.4.1.14777.2.11

1.5 Xedapen orokorrak

Identifikazio-betebeharrak

IZENPEk –berez edo berarekin bidezko lege-tresna izenpetzen duten entitate erabiltzaileen bidez– egiaztatzen ditu, dagozkien erregistroetan, ziurtagirian jasoarazten diren identitatea eta beste zeinahi datu pertsonal.

Ziurtagiri-harpidedunaren betebeharrak

Harpidedunak *Ziurtapen Praktiken Deklarazioan –9.6.9 Ziurtagiriaren harpidedunaren betebeharrak atalean–* jasotzen diren betebeharrak bete beharko ditu.

2 ZIURTAGIRIAREN BIZI ZIKLOA

2.1 Identitatea egiaztatzea eta ziurtagiria eskatzea

IZENPEk eskatzailearen identitatea egiaztatuko du modu hauetako edozeinetan:

➤ Bertaratuta.

Eskatzaileak

- www.izenpe.com web-gunera sartu, eta ziurtagiria jaulkitzeko eskaera osatuko du.
- Ziurtagiriaren zenbatekoa ordainduko du, hautatutako ordaintzeko aukeraren arabera.
- Dokumentazioa jarriko du:
 - IZENPEk www.izenpe.com web-gunean argitaratuko du ziurtagiria jaulki aurretik zer entitatek bidali behar duten beharrezko informazioa IZENPE, SAren helbidera –TOMAS ZUMARRAGA DOHATSUA k., 71 –1.a – 01008 GASTEIZ–.

Dokumentazioa baliozkotu ondoren, eskatzailea erregistro-entitatean bertaratuko da, IZENPEk emandako hitzorduan.

- Hala egin ezean, eskatzaileak www.izenpe.com web-gunean hitzordua finkatu ostean emango du dokumentazioa erregistro-entitatean.
- Honela identifikatuko da,
 - Espainiako hiritarra bada, indarrean dagoen NANarekin, pasaportearekin edo gida-baimenarekin.
 - Europar Batasuneko/Europako Esparru Ekonomikoko hiritarra bada, AIZrekin eta indarrean dagoen pasaportearekin edo haien herrialdean baliokidea den nortasun-agiri nazionalarekin.
 - Europar Batasunaz kanpoko hiritarra bada, egoitza-txartelarekin.

Eskatzailearen identifikazioa ezin bada adierazitako moduan egin, IZENPEk zehaztuko du kasuak kasu identifikaziorako beharrezkoa den dokumentazioa.

Eskatzaileak identifikazio-dokumentuen fotokopia gaineratu beharko du, edo IZENPEri baimena eman beharko dio datuak Administrazio eskudunaren aurrean egiaztatzeko, eskaera-formularioaren bitartez.

- Ziurtagiria jaulkitzeko eskaera bete eta sinatuko du, eta *ziurtagiria erabiltzeko terminoak eta baimenak* onartuko ditu.

➤ Ziurtagiria jaulkitzeko eskaeraren sinadura notarioak egiaztatzea.

➤ Edo sinadura elektronikoko ziurtagiri baten bitartez.

Eskatzaileak

- www.izenpe.com web-gunera sartu, eta *ziurtagiria jaulkitzeko eskaera* sinatuko du eNAN bidez edo IZENPEk jaulkitako pertsona fisikoko ziurtagiri kualifikatu bidez.
- *Ziurtagiria erabiltzeko terminoak eta baldintzak* onartuko ditu.
- Ziurtagiriaren zenbatekoa ordainduko du, hautatutako ordaintzeko aukeraren arabera.
- Beharrezko dokumentazioa bidaliko du IZENPE SAren helbidera –TOMAS ZUMARRAGA DOHATSUA k., 71 –1.a – 01008 GASTEIZ–.



IZENPEk www.izenpe.com web-gunean argitaratzen du erakunde bakoitzak bere konfigurazio juridikoaren arabera jarri behar duen dokumentazioa.

2.2 Eskatutako dokumentazioa

ENTITATE ZIGILUA	<p>Legezko ordezkaria</p> <ul style="list-style-type: none">– Administratzaile bakarra, solidarioa edo kontseilari ordezkaria.– Sozietatearen administrazio mankomunatuaren kasuan,<ul style="list-style-type: none">- Jartzen den merkataritza-dokumentazioan, administratzaile mankomunatuaren nortasuna eta jarduteko modua jasoarazi beharko da.- Ziurtagiria jaulkitzeko eskaeran, administratzaile mankomunatuaren bakoitzaren sinadura jasoarazi beharko da identifikazio-dokumentuaren zenbakiarekin batera (indarrean dagoen NANA, pasaportearen edo gidabaimena, AIZ).– Sozietatearen administrazioa Administrazio Kontseilu bati badagokio, presidenteari dagokio ziurtagiria jaulkitzeko eskaera egitea.
-------------------------	---

2.3 Ziurtagiria jaulkitzeko eta emateko prozedura

IZENPEk ziurtagiria jaulkitzeari eta emateari ekingo dio,

IZENPEREN EDUKITZAILEA

1. IZENPEk eskatzaileari IZENPERen edukitzaile huts bat emango dio. Posta elektronikoko bidez bidaliko da eskaeran adierazitako helbidera.
2. Eskatzaileak edukitzailea hasieratuko du eta gako-parea eta eskaera teknikoa (csr) sortuko du.
3. Eskatzaileak IZENPERi bidaliko dio eskaera teknikoko fitxategia (csr).
4. IZENPEk ziguiluziurtagiria jaulkiko du, eskatzaileak bidalitako eskaera teknikoa erabilia.
5. IZENPEk eskaera-formularioan adierazi den helbide elektronikora bidaliko du ziurtagiria.

2.4 Ziurtagiria egiaztatzea

Sinatzaileak, ziurtagiria jaulki, eta 15 egun baliodun izango du behar bezala funtzionatzen duela egiaztatzeko, eta, beharrezkoa bada, IZENPERi funtzionamendu-akatsak dituela jakinarazteko.

Funtzionamendu-akatsak kausa teknikoen ondoriozkoak direnean (ziurtagiriaren euskarriaren funtzionamendu txarra, ziurtagiriaren errore teknikoa, eta abar) edo IZENPERi egotz dakizkiokeen ziurtagiriko datuetako erroreak direnean, orduan soilik ezeztatuko du IZENPEk ziurtagiria eta beste bat jaulkiko du, ondoriozko gastuak bere gain hartuta.

2.5 Ziurtagiria ezeztatzea

➤ Ziurtagiria ezeztatzeko eskaera.

Honako hauek eska dezakete ziurtagiria ezeztatzea:

- [Harpidedunak](#), hauek dute ziurtagiria ezeztatzea eskatzeko baimena: entitate harpidedunaren legezko ordezkariak, langileen arduradunak edo aurreko bietako edozeinek baimendutako hirugarren batek.



- [Edukiztaileak](#).
- [IZENPEk](#), administratzaileek eta erregistro-entitateek baimena dute azken entitateko harpidedun-ziurtagirien ezeztapena eskatzeko.

➤ Prozedura

Ziurtagiria ezeztatzea eskatzen duenak IZENPEren aurrean bideratuko du *ziurtagiria ezeztatzeko eskaera*.

Ziurtagiria edozein unetan ezeztatu ahal izango da, eta ziurtagiria lapurtu edo galdu denean beti.

Harpidedunak honako bide hauek ezeztatu ahal izango du ziurtagiria:

- [Bertaratuta](#), IZENPEri www.izenpe.com web-gunean hitzordua eskatuta.
- [Edo posta bidez](#), ziurtagiria ezeztatzeko eskaera sinatuta eta notario aurrean legitimatu ostean bidalita.
- [Telefono bidez](#), 902 542 542 telefonora deituta.
- [On line](#), www.izenpe.com helbidean.

[Telefono bidez eta on line](#) ezeztatu nahi izanez gero, identifikaziorako beharrezkoa izango da:

- ✓ NANA /AIZ.
- ✓ Telefono bidez identifikatzeko pasahitza.
- ✓ Entitatearen IFK.

➤ Ezeztatzeko arrazoiak

Ziurtapen Praktiken Deklarazioan kontsulta daitezke (www.izenpe.com).

2.6 Ziurtagiriak berritzea

Ziurtagiria iraungi aurreko 60 eguneko epean berritu ahal izango da ziurtagiria. Honela egin daiteke:

- [On line](#). Ziurtagiriak indarrean egon beharko du, eta eskatzaileak gakoak ezagutu beharko ditu.

Beharrezko egiaztapenak egin ostean, IZENPEk *ziurtagiria jaulkitzeko eskaeran* adierazitako posta-helbidera bidaliko dizkio ziurtagiria eta gakoak eskatzaileari. Bi bidalketa berezitan bidaliko dizkio.

- [Bertaratuta](#). IZENPEk aurreikusitako ziurtagiria jaulkitzeko eta emateko prozeduraren arabera bideratuko du berritzea.

3 ZENBATEKOA

IZENPEk urtero argitaratzen ditu aplika daitezkeen tarifak bere www.izenpe.com web-gunean.

Ordaintzeko eskaintzen diren aukerak:

- Elektronikoki sinatutako jaulkipen-eskaeraren kasuan,
 - On line ordainketa, ordainketa-pasabidearen bitartez.
 - Ordainketa-agiri bidez, banku-entitatean aurkezteko.
- IZENPEren erregistro-entitatara bertaratu eta ordainduta, banku-txartel bidez.



4 ZIURTAGIRIAREN PROFILAK

IZENPEk www.izenpe.com web-gunean ematen ditu argitara ziurtagirien profilak.

5 ALDAKETAK

5.1 Aldaketaren kudeaketa

Dokumentu honetan egiten diren aldaketak IZENPEren Segurtasun Batzordeak onartuko ditu.

Berariazko dokumentazioaren bertsio eguneratuak www.izenpe.com helbidean kontsultatu ahal izango dira.

5.2 Aldaketen kontrola _1.0 bertsioa

Eskakizun osagarriak	➤ <i>1999/93/EE Zuzentaraua indargabetzen duen Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren identifikazio elektronikoari eta barne-merkatuko transakzio elektronikoetarako konfiantzako zerbitzuei buruzko uztailaren 23ko 910/2014 Araudira egokitzea</i>
Eskakizun eguneratuak	
Argibideak	
Editoriala	
Ezabatutako eskakizunak	